

Enpresaren Ekonomia

- **BATXILERGOA**
- **LANBIDE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**



**Unibertsitatera
Sartzeko Ebaluazioa**

UPV/EHU

2017



***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

A AUKERA

A1 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

Euskalteleko zuzendaritzak akordioa lortu du CCOO eta ELArekin, eta **lan-hitzarmen** berri bat sinatu dute, 2019ra arte indarrean egongo dena. Orain arte indarrean egon den 2013ko abendukoa da, eta luzatuz joan da harrezkero. «Egoera konplexuan» dagoen **sektore** baterako «itun ona» dela nabarmendu du CCOOk. Sindikatuaren esanetan, zerbitzuen **azpikontratazioak** zirela-eta azken urtean izandako gatazken ostean, langileei «baldintza egonkor positiboak» bermatuko zaizkie. Euskalteleko zuzendaritza ere pozik agertu da akordioagatik eta negoziazioetan bi aldeek erakutsitako «erantzukizunagatik».

Lan-hitzarmen berriak soldata-igoerak, lanorduen murrizketak eta ultraaktibitateari eta malgutasunari buruzko hobekuntzak biltzen ditu, besteak beste. CCOOren arabera, 2015eko «soldata erregulatzea» adostu dute, eta langileek 650 eta 850 euro arteko ordainsari bat kobratuko dute bakoitzaren soldata-oinarriaren arabera. Horrez gain, % 1eko soldata-igoera ere onartu dute, **KPI**aren igoerarekin, eta % 2ko igoera gehigarri batekin. % 2ko igoera hori enpresako helburuak betetzearen menpe egongo litzateke.

Lanorduei dagokienez, datozen urteetan 20 ordu murriztea adostu dute, eta lan-hitzarmenaren ultraaktibitatea bi urtekoa izango da. CCOOk azaldu du malgutasuna mugatzea ere lortu dutela: urte osoan lanaldiaren % 10 bakarrik banatu ahal izango da modu irregularrean.

CCOOren ustez, soldaten igoera ziurtatu izanak langileen erosteko ahalmena bermatuko du, baina gaineratu du oraindik ere badaudela Euskaltelen hobetu beharreko arloak, eta horiek konpontzeko lanean segituko duela. «Sailkapen profesionala edo enpleguaren berme handiagoa izatea» jo ditu hobetu beharreko arlo garrantzitsutzat.

Euskalteleko zuzendaritzak adierazi du konpainiako **enpleguaren egonkortasuna** bermatu dutela, eta hitzarmenak, soldata-igoerak negozio-helburuei eta **errentagarritasunari** lotuz, «konpainiaren eta bertako pertsonen etorkizunaren alde egin duela ».

Galderak:

- Defini itzazu letra lodiz nabarmenduriko terminoak.
- Defini ezazu *soldata* hitza, eta azaldu ezazu zer elementuz osatuta dagoen.



A2 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Enpresa baten diru-sarrerak, iaz, 400.000 € izan ziren. Kostu finkoak 60.000 € izan ziren, eta etekinak 140.000 €. Produktuaren salneurria 25 € izan zen unitateko. Kostu finkoak eta produktuaren salneurriak ez dira aldatu aurreko urtearekiko.

Aurten, ordea, fabrikatutako unitate bakoitzeko kostu aldakorra % 20 igo da, ekoizpenean erabilitako osagai bat garestitu delako.

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- Zenbat unitate ekoitzi beharko ditu aurten etekinak izateko?
- Egin irudikapen grafikoa, eta azaldu esanahia.
- Enpresa pentsatzen ari da garestitu den osagaia enpresak berak ekoiztea. Horretarako, 50.000€-ko inbertsioa behar litzateke, eta, egindako kalkuluen arabera, fabrikazio-kostu aldakorra 2€ izango litzateke unitateko. Kontuan izanda unitate bakoitza 7€-an erosten ari dela, komeni al zaio berak ekoiztea baldin eta aurtengo ekoizpena iazko berbera izatea espero bada? Horrela izango balitz, zenbat aurreztuko luke enpresak? (Oharra: fabrikatutako ale bakoitzeko osagai bat behar da).
- Kalkulatu zein litzatekeen osagaiaren preziorik altuena erostea ekoiztea baino aukera hobea izateko.

A3 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

INDUTEX enpresak osagai elektronikoak ekoizten ditu. Urtean, 15.000 kg material kontsumitzen ditu, eta bere ohiko hornitzaileari material horien 10 eskaera egiten dizkio urtean zehar. Hornitzaileak, eskaera bidaltzeko, 12 egun behar ditu batez beste, eta denbora-tarte horretan INDUTEXek 500 kg kontsumitzen ditu osagai elektronikoaren ekoizpenean. Biltegian duen izakinen batez besteko maila 800 kg bada,

Kalkula ezazu:

- Segurtasun-stockaren bolumena.
- Eskaera-puntua.
- Biltegitratzeko batez besteko denbora.
- Egin adierazpen grafikoa.
- Zer gertatuko litzateke hornitzailea 8 egun atzeratuko balitz? Jarrai lezake enpresak ekoizten?

A4 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu

EKI kooperatibak finantzaketa-iturri berriak lortu ditu, eta ekoizpenari eragingo dioten bi inbertsio-egitasmo ditu, A eta B. Hona hemen bakoitzaren ezaugarriak:



A inbertsioaren ezaugarriak:

Hasierako inbertsioaren kostua	58.000 €
Urteko diru-sarrerak	53.000 €
Urteko kostuak	25.000 €
Hondar-balioa	5.000 €
Iraupena	4 urte

B inbertsioaren ezaugarriak:

Hasierako inbertsioaren kostua	65.000 €
Urteko kostu finkoak	10.000 €
Unitate bakoitzeko salmenta prezioa	65 €
Unitate bakoitzeko kostu aldakorrak	31 €
Iraupena	3 urte

B proiektuan, urteko ekoizpen- eta salmenta-bolumen hauek edukitzea espero da:

1. urtea	900 unitate
2. urtea	1.100 unitate
3. urtea	880 unitate

Kontuan hartuta inflazio-tasa % 2 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa % 4 dela:

- Kalkula ezazu aukera bakoitzaren berreskuratze-epea (Pay-Back delakoa). Zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- Kalkula ezazu, ezarritako baldintza horietan, aukera bakoitzaren balio eguneratu garbia (BEG). Zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

A5 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu

Oinatz Apeztegia jaunak 3.100 akzio erosi zituen, akzioko 19,75 € ordainduta. Abuztuan, dibidendu gisa, akzio bakoitzeko 1,27 € jaso zuen. Azaroan, 3.100 akzioak saldu zituen akzioko 21,30 €-an.

Erantzun ezazu:

- Zer errenta eta errentagarritasun sortu dute akzioek?
- Kontuan hartuta enpresa horrek 60.000 akzio dituela eta gaurko egunean 22 €-an itxi dela burtsan akzioaren balioa, zenbat balio du enpresa horrek?
- Zein da akzio baten balio nominalaren eta kotizazio-balioaren arteko desberdintasuna?



B AUKERA

B1 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu.

LUKALO SHIRTS enpresak zetazko alkandoren sektorean dihardu. 1971. urtetik gaur arte, bere lantegietan ekoitzi izan ditu Europako merkatuan saldu izan dituen alkandorak. Hala ere, aztertu nahi du ea komenigarriago den, hemendik aurrera, enpresan bertan ekoitzi ordez Indiako enpresa bati erostea.

Honako datu hauetan oinarrituko da kostuen azterketa egiteko:

- Iaz, 15.700 alkandora behar izan zituen. Ekoizpenaren kostu osoa 715.520 € izan zen, 79.670 €-ko kostu finkoak barne. Kostu finkoak eta kostu aldakorrek unitateko iazko berdina dira.
- Indiako enpresak alkandora bakoitza 47 €-an saltzen dio.

Hau eskatzen da:

- a) Zer alkandora kopurutik aurrera da aukerarik onena berak ekoiztea?
- b) Adierazi aurrekoa grafikoki.
- c) Aurten 17.000 alkandora saltzea aurreikusten badu, zer komeni zaio, ekoizten jarraitzea ala Indiako enpresari erostea?
- d) Aurten kostu finkoak % 15 murriztea lortuko balu eta 16.500 alkandora beharko balitu, zein izango litzateke alkandora bakoitzeko gehienez ordainduko beharko lukeena Indiako enpresan erostea erabakiko balu?

B2 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

MOBELAN SAL enpresak 25 langile zituen iaz; haien lan-egutegia 235 egunekoa izan zen, eguneko 8 ordu lan eginez, eta enpresak 705.000 unitate ekoitzi zituen.

Aurten, 28 langile izan ditu, lan-egutegia 236 egunekoa izan da eguneko 8 ordu lan eginez, eta enpresak 1.057.280 unitate ekoitzi ditu.

Datu horiek kontuan harturik, kalkula ezazu:

- a) Urte bakoitzean izandako produktibitatea. Azaldu ezazu lortutako datuen esanahia.
- b) Kalkulatu produktibitatearen igoera- edo jaitsiera-portzentajea, eta egin ezazu iruzkin bat emaitza horri buruz.
- c) Zenbat ekoitzi behar luke enpresak aurten iazko produktibitatea errepikatzen?
- d) Aurten, sektoreko enpresen produktibitatea 23,60 unitate/lanordu izan da. Azter ezazu MOBELAN enpresaren aurtengo produktibitatea sektorekoarekin alderatuta.

B3 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

“GARDEN&TASUNA” enpresa PVCzko eta aluminiozko leihoen salerosketan aritzen da. Ondare-elementu hauek ditu 2016ko abenduaren 31n:



1. Leihoak erosteagatik ordaintzeko dituen fakturak	103.000 €
2. Leihoak saltzeagatik kobratzeko dituen fakturak	98.000 €
3. Lurrak eta ondasun naturalak.....	162.000 €
4. Banaketak egiteko furgoneta.....	38.000 €
5. BANKIARI 4 urte barru itzuli beharreko mailegua	127.000 €
6. Hornitzaileei ordaintzeko letrak	92.000 €
7. Ordenagailu eta inprimagailuak	3.750 €
8. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	17.000 €
9. Gizarte Segurantzari zor diona.....	21.000 €
10. Bezeroei kobratzeko letrak.....	36.000 €
11. Bere jarduera garatzeko duen pabiloia.	295.000 €
12. Kutxabank-eko kontu korrontean daukan dirua.....	70.000 €
13. Enpresak duen eskudirua.....	1.000 €
14. Ekitaldiko emaitza.....	54.000 €
15. Ogasun publikoari BEZagatik zor diona	19.500 €
16. Biltegian dituen leihoak	116.000 €
17. Legezko erreserbak.....	51.000 €
18. Kapital soziala.....	???????

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
 - Diruzaintza edo altxortegia.
 - Likidezia.
 - Bermea.
 - Zorpetze osoa

B4 GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

Duela gutxi arte, marketin-agentziak asko arduratzen ziren eraginkortasunaz, eta estrategia bigarren mailan uzten zuten. Hala ere, agentzia horiek denbora berrietara moldatu behar izan dute, **entzuleria** oso zatituta baitago eta kontsumitzaileek arin-arin aldatzen dutelako beren portaera.

Hori dela eta, gaur egun, gehiago egin behar dute gutxiagoren truke: betiko teknikak ahaztu, hala nola **merchandisinga** eta publizitate-esparruak erostea, eta teknologia eta "big data"ren aldeko apustua egin; hala, **markekin** komunikazio zuzena izatea, estrategien eraginkortasuna eta inbertsioaren itzulkina lor daitezke.

Galderak:

- Defini itzazu nabarmendutako hitzak.
- Aipa eta azaldu itzazu merchandisingeko hiru teknika.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAn ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoaren analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoaren arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.